



11. AKTA

2004ko urriaren 27an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila lauko urriaren hogeita zazpian.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 13,30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzaraldiko akta 9. 2004ko abuztuaren 25koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 11/04 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.



Pasaiako Gobernu Batzarrak erabaki du ontzat ematea 11. zka. duen kontu eta fakturen zerrenda, HIRUREUN ETA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (303.781,73 Euro).

3.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2004ko irailaren 21ean eta 2004ko urriaren 8an eta 19an aurkeztutako proposamenak, EJ 1/04 eta Udalaren menpeko lehenengo proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketari buruzkoak aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ1/04 eta Udalaren menpeko lehenengo proposamenei dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARREN.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

4.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak. 4/04 zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko urriaren 14an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 16.189,00 eurokoak. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1347/04 Baimenduaren kontura.

5.- “El Poblado Eskoletako fatxada birgaitzea” obraren 1. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 1

Obra: “El Poblado Eskoletako fatxadaren birgaitzea”

Obra-zuzendariak: José Joaquín Mitxelena (Udal Aparejadorea).



BIDASORO IGELTSERITZA enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA SEI MILA EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (26.147,37 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1012/04 Disposamenduaren kargura.

6.- “El Poblado Eskoletako estalkia berritzea” obraren 1. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 1

Obra: “El Poblado Eskoletako estalkiaren berrikuntza”

Obra-zuzendariak: José Joaquín Mitxelena (Udal Aparejadorea).

BIDASORO IGELTSERITZA enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA ZENTIMO BAT (29.223,01 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1011/04 Disposamenduaren kargura.

7.-“Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza” obraren 5. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 5

Obra: “Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza”

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA HOGEITA HIRU MILA BOSTEHUN ETA EURO BAT ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (123.501,69 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.



8.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 5. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 5

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITASEI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (55.686,07 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

9.- Itsasmendi elkarteari sukaldaritza ikastaroetarako dirulaguntza.

2004ko urriaren 20ko Gazteria eta Kirolaren Zinegotzi-Delegatuaren proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENGO.- Onartzea S.C.R.D. Itsasmendi Elkarteari gazteen Sukaldaritzako 2 ikastaroetarako 1.101,96 euroko dirulaguntza bat ematea A-1353/04 baimenduaren kargura hurrengo ordainketan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak seinalatuz.

10.- Berraztertze-errekurtsioa, Alberto Alicantek jarri du Tokiko Gobernu Batzarrak 04-5-31n hartutako erabakiaren aurka.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko maiatzaren 31n egindako bilkuran ukatu egin zion Alberto Alicante Santiago jaunari IBILGAILUEN GARAJE-GORDELEKUAK jarduera instalatzeko lizentzia eta halaber Hamarretxeta 27-beheko lokala aipatutako jarduerara egokitze obra-lizentzia ere, gune horretan ibilgailuen sartu-irtenak zirkulazio-arazoak sortzen dituelako. Akordioa ekainaren 29an jakinarazi zitzaion eta besteak beste, udal eskubideak likidatzeko adierazi zitzaion.

Interesdunak 2004ko irailaren 28ko datan berraztertze errekurtsioa jarri zuen goian aipatutako akordioaren aurka, jarduera jartzeko betekizunak zein ziren galdetu zuela arrazoituz.

2004ko martxoaren 23ko idatzian hitzez hitz honako eskaera egin zuen: “*solicito que dicho vado sea cambiado de nombre al de los actuales propietarios (.). De igual manera solicito que el perito del Ayuntamiento se ponga en contacto conmigo con el fin de ver dicho local e indicarnos los cambios a realizar*”

Udal aparejadoreak egiaztatze-bisita egin ondoren aurkako txostena egin zuen obrari buruz eta eskaeran deskribatzen den jardueraz.

Zerbitzu publiko eta administrazio-jardueren tasak arautzen dituen Udal Ordenantzak 3. artikuluan xedatzen du: “*Toki-Administrazioak zerbitzu bat eskaini edo jarduera bat egiten duenean zerga-egintza bat egiten du, berdin da herritarrek hala egiteko eskatu diotelako egin, edo bestela Udalak bere ekimenez egin, herritarrek egin duten edo egin gabe utzi duten zerbaitek eraginda.*” Hori guztia alde batera utzita lizentzia Udalak ematen duen edo ukatzen duen hirigintzako arautegiarekin bat ez etortzeagatik.

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Alberto Alicante Santiago jaunak Pasaiako Udaleko Gobernu Batzarrak 2004ko maiatzaren 31ko bilkuran hartutako Akordioaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa, guztiz delako zuzenbidearen arabera. Akordio horren bidez ukatu egiten zitzaion IBILGAILUEN GARAJE-GORDELEKUAK jarduera instalatzeko lizentzia eta halaber Hamarretxeta 27-beheko lokala aipatutako jarduerara egokitze obra-lizentzia.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea, eta bertan aditzera ematea ebazpen honen aurka soilik administrazioarekiko auzia jar dezakeela Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian.

11.-Obra-baimena Pablo-Enea, 16 kalean.

Maria Elena Ferreira Da Silva andreak 2004-09-22an obra txikia egiteko lizentzia eskatu zuen bere etxebizitzan, Pablo Enea, 16-3.a B-n ondoko lan hauek egiteko:

- Hainbat tabike botatzea, erantsitako planoan marraztutakoak.
- Tabike berriak egitea, balkoiaren erabilera aldatu eta bertan komuna jartzeko.
- Sabai faltsuak berritu eta margotzea.

Udal aparejadoreak 2004ko urriaren 1ean eskaeraren aurkako txostena egin zuen eta bertan ondokoa adierazi zuen: erantsitako planoen arabera, balkoia etxebizitzaren zati izango da, zehazki komuna.

Itxituraren ondorioz etxebizitzaren aprobetxamendua handitu egingo da eta Hirigintzako Ordenantzen 051. artikuluan hori debekatu egiten da.

Bestalde, udalak balkoia ixteko baimena eman dezake, baldin eta Pablo Enea 18-20 eraikineko etxejabeek balkoi guztiak ixteko akordioa hartzen badute.

Obra egiteko aurrekontua 3.334,84 eurokoa da.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Maria Elena Ferreira Da Silva andreari obra txikia egiteko lizentzia ukatzea. Hain zuzen ere Pablo Enea, 16-3.B etxebizitzan ondoko lan hauek egin nahi zituen: tabike batzuk bota eta tabike berriak egin, balkoiaren erabilera aldatu eta bertan komuna jartzeko; eta sabai faltsuak berritu eta margotu. Izan ere, obra horiekin etxebizitzaren aprobetxamendua handituko litzateke, eta araudiak ez du baimentzen.

BIGARRENA.- Akordio hau Errenta Sailean bidera dadila, dagozkion eskubideak ordainaraz daitezten.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

LAUGARRENA.- Udaltzaingoari akordio honen berri ematea, akordioa beteko dela ziurta dezan.

12.- Obra-baimena Pablo-Enea, 20 kalean.

Clementina de Jesús Crista andreak 2004-09-22an obra txikia egiteko lizentzia eskatu zuen bere etxebizitzan ondoko lan hauek egiteko:

- Hainbat tabike botatzea, erantsitako planoan marraztutakoak.
- Tabike berriak egitea, balkoiaren erabilera aldatu eta bertan komuna jartzeko.
- Sabai faltsuak berritu eta margotzea.

Udal aparejadoreak 2004ko urriaren 1ean eskaeraren aurkako txostena egin zuen eta bertan ondokoa adierazi zuen: erantsitako planoen arabera, balkoia etxebizitzaren zati izango da, zehazki komuna.

Itxituraren ondorioz etxebizitzaren aprobetxamendua handitu egingo da eta Hirigintzako Ordenantzen 051. Artikuluan hori debekatu egiten da.

Bestalde, udalak balkoia ixteko baimena eman dezake, baldin eta Pablo Enea 18-20 eraikineko etxejabeen komunitateak balkoi guztiak ixteko akordioa hartzen badu.

Obra egiteko aurrekontua 3.334,84 eurokoa da.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU



LEHENA.- Clementina De Jesus Crista andreari obra txikia egiteko lizentzia ukatzea. Hain zuzen ere Plablo enea, 20-3.D etxebizitzan ondoko lan hauek egin nahi zituen: tabike batzuk bota eta tabike berriak egin, balkoiaren erabilera aldatu eta bertan komuna jartzeko; eta sabai faltsuak berritu eta margotu. Izan ere, obra horiekin etxebizitzaren aprobetxamendua handituko litzateke, eta araudiak ez du baimentzen.

BIGARRENA.- Akordio hau Errenta Sailean bidera dadila, dagozkion eskubideak ordainaraz daitezten.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

LAUGARRENA.- Udaltzaingoari akordio honen berri ematea, akordioa beteko dela ziurta dezan.

13.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Josefa Martin Moro andreak egindako ondare erreklamazioa.

Ikusirik JOSEFA MARTIN MORO andreak egin erreklamazioa, 3328-CVK matrikula duen ibilgailuaren gurpil batean izandako kalteen ordainez 110,20 euro erreklamatu, kalteak 2004ko ekainaren 9an Pasai Donibanen estoldaren zintarriaren kontra eginak izanik.

2004ko uztailaren 6an egin zitzaion eskaerari erantzun ez duenez, eta beraz ezinezkoa denez erantzukizunik badagoen ala ez (ez dakigu kalearen jabetza norena den, ezta aparkamendua baimendua dagoen ala ez, ezta zein den leku zehatza ere), Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Erreklamazioa bertan behera utzi eta, ondorioz, aktuazioak artxibatzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioak seinalatuz.

B) Junkal Fernández Esperanza andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik JUNKAL FERNANDEZ ESPERANZA andreak aurkeztu erreklamazioa Euskadi etorbideko 13 bis, 1. ezkerreko pisoan 2002ko urtarrilaz gero Udalak argiteria publikoko farol bat



bere etxebizitzaren parean eraikinaren fatxadan jarri eta hezetasunagatik izan dituen kalteen ordain bezala eskatuz.

Ikusirik erreklamazioa aurkeztu duen data (2003ko urriaren 14an), eta

Ikusirik Herri Administrazioen Erregimen Juridiko eta Administrazio Arruntaren Prozeduraren Legeko 4. artikulua, non dioen: "... Dena dela, erreklamatzeko eskubidea amaitua izango da kalde ordaina kausatu duen egintza edo aktua edota kaltearen azalpena gertatu eta urtebete igaro ondoren", eta epe hau pasatua delarik 2002ko urtarrilaz gero, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JUNKAL FERNANDEZ ESPERANZA andreak aurkeztu erreklamazioa gaitzestea, epea iraungia delako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak seinalatuz.

C) M^a Carmen Rodríguez Prego andreak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik MARIA CARMEN RODRIGUEZ PREGO andrea egin erreklamazioa Pablo Enea kaleko 1. zenbakiko etxeko administraria denez, atariko atearen kristalean izandako kalteak direla eta, 2.004ko ekainaren 28an bere funtzioekin beteaz, sasi-garbitzeko makinarekin lanean ari zela, kristalaren aurka zerbait bota zuelako; eta ikusirik Udal Zerbitzuen Sailak gertatuaz luzatutako txostena, Gobernu Lokalaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MARIA CARMEN RODRIGUEZ PREGO PABLO ENEA, 1eko JABEKIDEEN ADMINISTRARIARI 46,21 euro abonatzdea KUTXAKO 2101 0003 06 0106445810 kontu-korronteko zenbakian, A-1.235/04ren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsuak seinalatuz.

D) Joan Karlos Bravo Marcos jaunak egin ondare erreklamazioa.

Ikusirik JOAN KARLOS BRAVO MARKOS jaunak egin erreklamazioa SS-6437-AL matrikula duen ibilgailuak duela bi urtez gero izan dituen kalteak direla eta Arrandegi kalearen egoera txarragatik, eta bertako dokumentazioaren arabera erreklamatzaileak ez du alegatzen ezta



kreditatzen ere kalteen zioa zerbitzu publikoaren funtzionamendua dela (LRJ-PAC-eko 6. art.) edota beste bat litzateke (piezak zaharkitzea, edota beste kausaren bat...), eta beraz, Gobernu Lokalaren Juntak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- JOAN KARLOS BRAVO MARKOS jaunak formulatu erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak seinatuz.

E) Iñaki Becerra Iturgaiz jaunak egin ondare erreklamazioa.

2003ko abenduaren 21ean uraren hoderia orokorraren leherketa baten ondorioz eta Oarso kaleko 13an behean, bere komertzioan izandako kalteak direla eta IÑAKI BECERRA ITURGAIZ jaunak egin erreklamazioari buruz.

Ikusirik Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Sailak luzatutako txostena eta ikusirik Udaleko aseguruia tasatzen duen perituak luzatutako txostena, zeinen balorazioa 2.001,40 eurokoa baita, Gobernu Lokalaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- IÑAKI BECERRA ITURGAIZ jaunak aurkeztu erreklamazioa, 2001,40 eurokoa, ontzat ematea.

BIGARREN.- A-722/04ren kargura Udalak 901,52 euro abonatuko ditu (udal aseguruoaren frankizia), 0042-0041-80-0100279553 kontu korronteko zenbakian eta 1.099,88 euro kantitatearen gainerakoa Allianz aseguruaren kargura joango da..

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioak seinatuz.

F) Gure Zumardia, 5 finkako administratzaileek egindako ondare-erreklamazioa

Gure Zumardia, 5 finkako administratzaileek erreklamazioa aurkeztu dute, azken 2 urte hauetan hodiak tratu egin ohi direlako.

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak 2004ko irailaren 28an egindako txotenean adierazten da tratatze hori erakinaren eroanbide pribatuan gertatu zela, finkaren azken erregistroko kutxeta eta saneamendu-kolektorearen arteko zatian; beraz, eroanbide hori konpontzea eta egoera onean mantentzea jabekideei dagokie. Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa



ERABAKI DU

LEHENA.- Gure Zumardia, 5 finkako administratzaileek egindako erreklamazioa **ezestea**, ondokoak oinarri hartuta: Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko buruak egindako txotena, eta Pasaiako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategineko 78.1, 106.2 eta 168. artikulua.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

G) Arkaitz Legorburu Romerok egindako ondare-erreklamazioa.

ARKAITZ LEGORBURU ROMEROK ondare-erreklamazioa aurkeztu zuen C-3595-BHH matrikula duen ziklomotoarean izandako kalteengatik; izan ere, 2004ko irailaren 8an erori egin zen Euskadi Etorbidean –azoka aurrean– jarritako abiadura murrizteko bandaren ondoan dagoen zulo batean.

Udalak egiaztatu du Trintxerpeko azoka aurreko abiadura murrizteko bandaren ondoan zulo bat dagoela; hala ere, erreklamazio-jartzaileari aukera eman zaio lekukoak eta bestelako frogak aurkezteko eta ez du horrelakorik egin. Eta udalaren iritziz erreklamazio-egileari dagokio gertakariak frogatzea.

Gertakaria Udal Ikuskapenaren egoitza aurrean jazo zen, eta bertan beti egon ohi da udaltzain bat. Hark ez du gertakari horien berri izan; horrez gain, erreklamazio-egilea ere ez zen bertara joan istripua gertatu eta berehala; eta normalena izango litzateke bertara joatea. Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ARKAITZ LEGORBURU ROMERO jn.ak egindako erreklamazioa **ezestea**, lehen azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

H) Soraya Caballero Prietok egindako ondare-erreklamazioa



SORAYA CABALLERO PRIETO and.ak ondare-erreklamazioa aurkeztu du udalean ondokoa adieraziz: 2003ko irailaren 19an Arrandegi kaleko 10. zk. parean erori egin zen, horren aurrean egiten ari diren eraikuntza-lanengatik gaitu duten oinezkoentzako gunean. Eta erorketa horrengatik 13.142,48 euro eskatzen ditu.

Udaltzaingoak egindako ikuskapen-akta aztertu dugu. Halaber, kontuan hartu ditugu erorketaren lekukoek egindako adierazpenak –espedientean jasoak–; lekukoek diote haren txakurraren uhalarekin trabatuta erori zela.

Beraz, kalte horiek ez dira sortu administrazioaren agindu zuzen baten ondorioz, ezta proiektuaren akatsen ondorioz ere. Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- SORAYA CABALLERO PRIETO and.ak egindako ondare-erreklamazioa **ezestea**, lehen azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

I) M^a Luisa Berrondo Imazek egindako ondare-erreklamazioa.

M^a LUISA BERRONDO IMAZ and.ak ondare-erreklamazioa aurkeztu du; izan ere, 2004ko uztailaren 11n erori egin zen Blas de Lezo kaleko 6. Zk.parean, baliza-zinta batekin trabatuta; zinta hori tenkatu egin zen Sanferminetako desfileko azken karroza pasa ondoren. Erorketa horrengatik 3.423,58 euro eskatzen ditu.

Lekukoek egindako adierazpenen bidez udalak ondokoa egiaztatu du: erreklamatzailerak, beste askorekin batera, hesiekin eta zintekin itxitako gunera sartu zen, eta une horretan amildu eta erori egin zen.

Beraz, ez dirudi udalaren erantzukizuna denik. Aitzitik, istripua izan zen, erreklamazio-egilearen oharkabetasunagatik gertatua. Horiek horrela, Pasaiako Gobernu Batzarrak bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- M^a LUISA BERRONDO IMAZ and.ak egindako ondare-erreklamazioa **ezestea**, lehen azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

J) Talleres Mecánicos Kai Aldek egindako ondare-erreklamazioa.

TALLERES MECANICOS KAI ALDE, S.A.L.k 2004ko urtarrilaren 26an idazki bat aurkeztu zuen udalean. Bertan jakinarazten dute La Herrera gunean dagoen enpresaren hainbat gelatan hezetasuna dagoela. Horren arrazoiak ere aipatzen dituzte: “... a nuestro entender y como algunos de sus empleados han comprobado in situ, es motivada por la construcción de la Tenencia de Alcaldía de Trintxerpe en la unión de la pared suya con la de nuestro pabellón”

Idazki horretan aipatzen dute 1998ko azaroaren 6ko sarrera datarekin udalari eman ziotela ura sartzen zela-eta zeuzkaten arazo berri.

Halaber, 2004ko apirilaren 23ko idazki bidez, udalari eskatu zioten kalte horiek sortu dituen pareta konpontzeko.

2004ko urriaren 4an udal aparejadoreak ondoko txostena egin zuen:

“TALLERES KAI-ALDEk 2004-09-27an udalari eskatu zion konpon ditzala ur-bilketako teilatuhodia eta hori hondatuta dagoela-eta sortu diren kalteak. Eskaera hori aztertu ondoren, nik, udal teknikariak, ondokoa

ADIERAZTEN DUT

- *Oraingo egoera*

Kai Alde Tailerren pabiloia La Herrera kai-eremuan dago, Trintxerpeko alkateordetzarern ondoan dagoen Gernika plazaren alboan.

Pabiloiaren eraikinak ganga itxurako estalkia du, horrek metalezko egitura du (01. Argazkia), zuntz-zementuzko xaflekin estalitakoa; bi teilatuhodi ditu ura biltzeko, estalkiaren bi aldeetako puntura beheenetan; horiek estalkiko euri-urak biltzen dituzte eta kai-eremuko urak biltzeko sistemara botatzen ditu, zorroten bertikalen bidez, zehazki hiru zorrotenen bidez.

- *Aurrekariak*

Alkateordetzako eraikina eta plaza hori egin zituztenean, hormigoizko horma bat eraiki zen, bistako adreiluaekin estalia, plaza eta pabiloia banatzeko...

Pentsatzekoa da lan horiek egin zirenean ez zela inolako kalterik eragin Talleres Kai Alderen pabilioiko ur-bilketako sisteman; izan ere, obra horiek duela hamar urte inguru egin ziren eta orain arte ez da inolako erreklamaziorik egon.

Pedro Abancens industria ingeniariak gai honi buruzko txostena egin zuen, eta ez du aipatzen teilatu-hodiaren egoera txarraren erruduna udalaren horma denik; soilik adierazi egiten du pabilioiko estalkian dagoen ur-bilketako sistema egoera txarrean dagoela.

Talleres Kai Aldek eskatuta teknikariak egindako txostenak hitzez hitz ondokoa dio:

“ De las consideraciones mencionadas, relativas a filtraciones, condensaciones, cámaras de aire y evacuaciones de aguas pluviales, se desprende que no se reúnen las condiciones mínimas para evitar los daños por agua existentes, dada la construcción del muro pantalla perteneciente al Ayuntamiento, el cual al no evacuar las aguas directamente a sumideros, permite filtraciones por ambos muros y en partes altas de la empresa como son las oficinas.”

- *Diagnosia, zergatiak eta arduradunak*

Nik, teknikariak, tailerretako instalazioak ikuskatzeko bisita egin nuen eta argi ikusten zen une horretan zegoen ur-bilketako sistemak ez zuela behar bezala tailerretako estalkiko ura bildu eta kanalizatzen; izan ere, argi eta garbi ikusten da filtrazioak sistema hori pasartzen den tokietan gertatzen direla.

Ur-bilketako sistemak tailerretako estalkiko ura biltzen du eta sistemaren mantenu eta funtzionamendua eraikinaren jabearen esku daude, hau da, Talleres Kai Alderen esku.

Pentsatzekoa da teilatu-hodiaren mantenimendua ez dela egokia izan, teilatu-hodi horretan dagoen landaretzagatik.

Nolanahi ere, argi dago sistema egoera txarrean dagoela eta ez duela betetzen daukan egitekoa. Ezin da ziurtasun osoz jakin zertan huts egiten duen sistemak, teilatu-hodian, zorrotetan, loturetan edo eremu horretako saneamendu horizontalean.

Hutsune horien guztien erantzukizuna, hasiera batean, erabiltzailearena da eta diagnosi zehatzago bat izan ezean, hari dagokio horiek konpondu eta egoera onean mantentzea.

Administrazioari egindako erreklamazioa iraungita egongo litzateke, gertakariak egiaztatu zirenetik urtebeteko epea askogatik pasa delako.



Gainera, erreklamazio-jartzailea baretu egin da aurreko erreklamazioa ustez ezetsi egin zelako.

Horiek horrela eta segurtasun juridikoaren printzipioarekin bat, Pasaiako Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- TALLERES MECÁNICOS KAI ALDE SALEk egindako erreklamazioa ezestea, lehen azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

14.- Antolamendu-neurriak, ondare-erreklamazioko espedienteak hobeto bideratzeko eta arriskutsuak izan daitezkeen egoeren aurrean eman beharrko erantzunak zehazteko.

Pasaiako Gobernu Batzarrak aztertu du zein antolamendu-neurri har daitezkeen, ondare-erreklamazioko espedienteak hobeto bideratzeko eta arriskutsuak izan daitezkeen egoeren aurrean udalak eman beharreko erantzunak zehazteko, edo espediente horiek azkarrago bideratzeko; ondare-erreklamazioen sailean gertatzen ari den judikalizazio masiboa ekidite aldera. Eta aukerak aztertu ondoren, ondoko neurriak hartu dira:

➤ **Arriskutsuak izan daitezkeen egoerei dagokienez:**

Udaltzaingoak dagokion parte egin ondoren, kalteengatik jarritako salaketak jaso ondoren edo Obra eta Zerbitzuetako peoi eta arduradunen edo zinegotzi eta alkateordeen barruko parteak jaso ondoren; Obra eta Zerbitzuetako ikuskatzaileak lehenengo balorazioa egingo du, premiazko konponketak zehazte aldera; kasu horietan konponketa lehenbailehen egingo da, gehienez ere horren berri jakin eta hurrengo egunean.

Gainerako gorabeherak egin beharreko obren barruan sartuko dira, saileko buruak ezartzen dituen lehentasunekin.

Udaltzaingoak arriskutsua izan daitekeen egoeraren baten berri duen unean baloratu egingo du hori konpontzeko premia dagoen, eta telefonoz edo beste bide azkarrago baten bitartez berehala jakinaraziko du; horrez gain, eguneko gorabeheren zerrendan sartu eta Obra eta Zerbitzuetara bidaliko du.

Parteak bidali ondoren, Udaltzaingoak egiaztatu egingo du egoera horiek konpondu diren edo ez. Horretarako, patruilen lan-banaketa egiten denean, egiaztatu beharreko egoeren zerrenda bana emango zaie. Konponduta behar lukeen zer edo zer konponduta ez dagoela egiaztatzen badute, berehala jakinaraziko diote alkateari, hark dagozkion neurriak har ditzan.

➤ **Obra eta Zerbitzuetako Sailak txostenak atzerapenarekin egiten dituela eta.**

Saileko buruari eskatzen zaio Gobernu Batzar honi adieraz diezaiola zergatik egiten diren txostenak atzerapenarekin, edo proposa ditzala konponbide egokiak, bai antolamendu aldetik eta bai bitarteko aldetik, ondare-erreklamazioko espedienteen izapideak azkartzeko.

➤ **Obra publikoei dagokienez.**

Erabaki da udal aparejadoreari, obren koordinatzaile denari, ondokoa eskatzea: obra publikoetako kontratistei aginduren bat ematen dienean arriskutsuak izan daitezkeen egoerei buruz edo segurtasun-neurriei buruz eta obra horiek berehala egiten ez dituztenean, Obra eta Zerbitzuetako Sailari horren berri eman diezaiola, sail horrek exekuzio subsidiarioaren bitartez obra horiek egin ditzan. Eta azken horrek Ekonomia Sailari jakinaraziko dio, ordainarazpen eta premiamenduari ekiteko, hala dagokionean.

Prozedura edo zuhurtzia hori obra-kontratueta baldintza administratiboen agirietan jasoko da.

➤ **Eguraldi txarra egiten duenean hartu beharreko neurri zehatzak.**

Haize edo euri bortitza nahiz beste egoera meteorologiko gogorren bat iragarrita dagoen egunetan, meteorologia-zerbitzuetatik nahiz SOS DEIAKeko larrialdi-zerbitzutik, Udaltzaingoaren buruak ondoko protokoloa jarriko du abian:

- Hirigintza Sailari eskatuko zaio aldazio, garabi edo era horretako elementuak jartzeko baimena duten obra-lizentzien zerrenda –gehienetan obra handiak izango dira–. Eta obra horietako arduradunei berehala adieraziko zaie segurtasun-neurriak har ditzatela, elementu horiek ondo eutsiz.
- Halaber, Udaltzaingoak Obra eta Zerbitzuetako Sailari arriskutsua izan daitekeen egoera horren berri emango dio, udalarenak diren elementuetan segurtasun-neurriak har ditzaten, hala nola, edukiontziak, markesinak, metalezko hesiak etab.

- Azkenik, Udaltzaingoak megafonia-sistema baten bidez herritarrei jakitera emango die kasu horietan zein neurri hartu behar dituzten, hala nola, fatxada, balkoi eta abarretatik elementu arriskutsuak kentzea (haizea dagoenean) kutxetak garbitzea (euria egiten duenean) edo beste zenbait.
- Gai-zerrendatik at eta bertako zinegotziek aho batez bertan sartzea aurrez berretsi ondoren, honako akordio hauek hartu dituzte:

15.- "Bizkaia Plazaren Urbanizazioa" obraren 3. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 3

Obra: "Bizkaia Plazaren Urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)".

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGETA HAMASEI MILA ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (36.077,65 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-509/04 Disposamenduaren kargura.

16.- "Lezo-Bide 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea" obraren 5. ziurtapena.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtapena:

Zka.: 5

Obra: "Lezo-Bide 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea".

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.



Zenbatekoa: OGEITA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (27.794,53 Euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

17.- Obra-baimena Daniel de Castelao, 7 kalean.

Cestero Instalaciones enpresak, Daniel de Castelao, 7. Zk.ko etxejabeen izenean, 2004-09-16an OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuen eraikinean gas-instalazio orokorra jartzeko.

Udal aparejadoreak 2004ko urriaren 4an eskaera horren aurkako txostena egin zuen, aurkeztutako dokumentazioak ez baitu justifikatzen Pasaiako Hirigintzako Udal Ordenantzak betetzen direnik:

- Galdara estankoa jartzea.
- Galdara etxebizitza barruan jartzea, inola ere balkoietan edo fatxadan.
- Keak ateratzeko hodia eraikinaren estalkia baino gorago joango da eta barruko patioa badago, hodi horiek patiotik joango dira; debekatuta baitago hodi hauek zuzenean fatxada ateratzea.

Lizentziako lanak egiteko aurrekontua 3.424,56 €koa da, horietatik 1.513,20 euro eraikinaren elementu komunei dagozkie.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Cestero Instalaciones S.L.ri, Daniel de Castelao, 7. Zk.ko etxejabeen izenean, eskatutako obra-lizentzia ematea. Ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- a) **Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.**
- b) **Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.**

- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062. artikulua arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezkoa denean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadaren ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udala Kontu-hartzailetzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

18.- Obra-baimena Blas de Lezo, 21 kalean.



Instalaciones Fontabal enpresak, Blas de Lezo, 21. Zk.ko etxejabeen izenean, 2004-09-21ean OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuen eraikinean gas-instalazio orokorra jartzeko.

Udal aparejadoreak 2004ko urriaren 4an eskaera horren aurkako txostena egin zuen, aurkeztutako dokumentazioak ez baitu justifikatzen Pasaiako Hirigintzako Udal Ordenantzak betetzen direnik:

- Galdara estankoa jartzea.
- Galdara etxebizitza barruan jartzea, inola ere balkoietan edo fatxadan.
- Keak ateratzeko hodia eraikinaren estalkia baino gorago joango da eta barruko patioa badago, hodi horiek patiotik joango dira; debekatuta baitago hodi hauek zuzenean fatxadara ateratzea.

Lizentziako lanak egiteko aurrekontua 10.834 €koa da, horietatik 5.415 euro eraikinaren elementu komunei dagozkie.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Instalaciones Fontabal S.L.ri, Blas de Lezo, 21. Zk.ko etxejabeen izenean, eskatutako obra-lizentzia ematea. Ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- a) **Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.**
- b) **Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.**
- c) **Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.**
- d) **Pasaiako Arau Subsidiarioen 062. artikuluaen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teilatura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezkoa denean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek**

sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.

- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzailetzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

19.- Instalazio-lizentzia. Ibilgailuen zaindegia. Maiatzaren Lehena, 14.

Antonio Villa Vargasek, Toño express Lube S.L. ren izenean, 2004-10-06an udal eskubideen likidazioari buruzko erreklamazioa aurkeztu zuen; 2004ko maiatzaren 31ko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia zela eta; hain zuzen ere, ezetsi egin zen Maiatzaren Lehena, 14-behean IBILGAILUEN GARAJE-ZAINDEGI jarduera jartzeko Instalazio-lizentzia (behin-behineko lizentzia), ondoren pasabide iraunkorra eskuratu ahal izateko. Lokal horretarako ibilgailuak olioztatze eta neumatikoak bulkanizatze jarduera-lizentzia bideratzen ari zen udala.

Likidazioa egiteko ondokoa hartu zen kontuan: jarduerak 100 m² baino gehiago zituenez, 171/1985 Dekretua aplikatu behar zen, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuetarako arau teknikoei buruzkoa.

Ibilgailuak olioztatzeko eta neumatikoak bulkanizatzeko jarduera jarriko den lokalak 100 m² baino gehiago dauzka. Hala ere, ibilgailuak gordetzeko erabiliko den zatiak ez du metro kopuru hori gainditzen, beraz, jarduera hori kaltegabetzat hartu beharko litzateke.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Antonio Villa Vargasek, Toño express Lube S.L.ren izenean, aurkeztutako erreklamazioa onartzea eta Gobernu Batzarrak 2004ko maiatzaren 31n hartutako akordioa zuzentzea; izan ere, eskatutako jarduera kaltegabea da eta ez izapideetatik salbuetsitako IGOKA jarduera, hutsegite baten ondorioz adierazten zen moduan.

BIGARRENA.- Kontu-hartzaitzari agintzea egindako likidazioa baliogabetzeko eta beste likidazio bat egiteko, 40-100 m² eskalari dagokion tasa aplikatuz.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

20.- Zehapen-espedientea, Pub Chernovil-ek (Terranova, 3) ez duelako ixteko ordua errespetatu.

LEHENA.- Alkateak 2003ko abenduaren 9an ebazpena eman zuen eta bertan Chernovil pub-eko titularra den Jose María Mayán Cortijosoren kontra zehapen-espedienteari hasiera eman zion. Udaltzaingoak egindako ordutegi-aktaren arabera, taberna abuztuaren 10ean goizeko 4:05etan irekita zeukan, eta barruan sei pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzeko ari ziren.

Aurreko egintza horrek lokalak irekitzeko eta ixteko ordutegia zehazten duten arauak urratzen ditu, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzko abenduaren 16ko 296/1997 dekretuan, eta uztailaren 28ko 210/1998 dekretua, aurreko aldatzen duena.

BIGARRENA.- 2004ko urtarrilaren 14an jakinarazi zitzaion espediente honi hasiera eman zion ebazpena, alegazioak idatziz aurkezteko hamabost egunetako epea emanaz. Urtarrilaren 21ean Fidel Castro Ageitosek alegazio idatzi bat aurkeztu zuen, eta bertan, lehenik eta behin, adierazten du tabernaren titularra bera dela eta ez Jose María Mayan eta inputatutako arau-haustek egiak zirela;



ondoren alegatzen zuen taberna itxita zegoela, baina kuadrila bat onez onean bidali ahal izateko edariak doan zerbitzatu beharra izan zuela.

HIRUGARRENA.- Fidel Castro Ageitosi 2004ko maiatzaren 26an jakinarazi zion Udalak hirigintzako teknikariaren akordio-proposamena, entzuna izateko izapiderearen barruan, bera baita jardueraren titularra.

Inputatuak ekainaren 14an alegazio idatzi bat aurkeztu zuen, ondorengo aipatuz:

- a) aurreko alegazio idatzian esandakoa berresten dutela
- b) lokala izan duen zazpi urte hauetan ordutegia ez betetzeagatik ez dutela inoiz isunik izan
- c) Terranova kaleko hiritartze lanak direla eta, tabernako diru-sarrerak %ko 30a arte jaitsi zaizkiola

LAUGARRENA.- Udaltzaingoari interesdunaren alegazio idatzia jakinarazi genion, horren inguruan egokia zeritzona adierazteko. Bertan ordutegiaren kontrol-agirian salatutakoa berretsi zuten.

FROGATUTZAT JOTZEN DIREN GERTAERAK

Frogatutzat jotzen da Fidel Castro Ageitos, Pub Chernovil-eko titularra dela, eta taberna 2003ko abuztuaren 10ean goizeko 4:05etan irekita zeukala, eta barruan sei pertsona zeudela; tabernan sarturtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzan ari ziren.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Aipatutako gertaerak eta inputatuaren erantzukizuna egiaztatuak izan dira Udaltzaingoak 2003ko abuztuaren 10ean egindako aktaren bitartez. Gainera, alegazioak egiteko emandako epean aurkeztu duen idatzian udaltzaingoaren aktan jasotzen zen gertaera baieztatu egin zuen.

BIGARRENA.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g) atalaren arabera, honako gertaera hauei zigor arina dagokie: "ikuskizunen hasiera edo amaiera atzeratzea, edota ikuskizun nahiz jolas jardueretako lokalak irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea".

Lokalak irekitzeko eta ixteko orduak honako dekretuetan arautzen dira: 296/1997 dekretuan, abenduaren 16koa, Jendaurreko Ikuskizun eta Jolasen Ordutegiari buruzkoa; eta, 210/1998 dekretuan, uztailaren 28koa, aurreko aldatzen duena.



HIRUGARRENA.- Urraketa horren erantzulea Fidel Castro Ageitos, Pub Chernovil-eko titularra da.

LAUGARRENA.- Aipatutako legearen 35.3 eta 36 ataletan zehazten da lege urratze arintzat jotako kasuetan aplikagarri direla 200.000 pezetarainoko zigorrak, eta kasu honetan proportzionala da 30.000 pezetatako isuna jartzea, kontuan hartuta ez dela herritarren aldetik salaketarik jaso.

Aurreko guztia kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Pub Chernovil-en jabea den Fidel Castro Ageitos Jauna zigortzea 180,30 euroko isuna ezarriz, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 legearen 34 g). atala urratzeagatik. Chernovil bezalako taberna bereziak egun horretan 2:30tarako itxiak egon behar dira, eta 4:05etan irekia zuen, barruan sei pertsona zeuden; tabernan sartu-irtena egiteko ez zegoen eragozpenik, eta edariak zerbitzatzen ari ziren

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 15,00 etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.